

## AMONAREN AMANTALA

Amonaren amantala zen nire tristuren magala, nire pozen iturria eta nire ametsen sorgunea. Hantxe hasi ziren nire bizitzako ametsak. Hantxe. Nire amonaren altzoan. Ene amatxi 1927ko abuztuaren 28an jaio zen, San Agustin egunez eta horregatik jarri zioten Agustina izena.

Gaur, 2017ko abuztuaren 28a da. Hainbeste maitatzen nuen amonaren eguna. Ene etxeko txokorik maiteenean pasa dut eguna. Nire etxea baserri zahar eta eder bat da, erreka ondoan dagoena. Nire txokoa nik txikitan eginiko txabola da, erreka bazterrean dago, zuhaitz baten magalean. Bertatik ederki ikusten nuen sukaldea, nire amonaren gela, eta nola pasatzen zituen arratsaldeak hain gustuko nuen arraina labean prestatzen. Handik usaintzen nuen arrain goxoaren usaina. Eta, San Agustin egunean inoiz baino hobea egiten zuen.

Egun batean sekulako jakin-mina sortu zitzaidan: nola jakiten da arraina freskoa dagoen ala ez? Izan ere, ene amatxik astean 3 bat aldiz ekartzen zuen arraina herritik. Goiz guztia pasatzen zuen arraina aukeratzen eta etxera ekartzen. Galdetu nionean zera erantzun zidan: *Begiyai beitu ber zaio, begiyak brillua bakate frexkua izango da, ta hortaz aparte azalan koloriai re beitu ber izaten da.* Amona beti hain jakintsu...

Halako batean, zoritxarreko egun hura iritsi zen. Goizean esnatu nintzenean etxean ez zegoen inor, baina papertxo bat zegoen sukaldeko mahai gainean: “Laztana, amona ospitalera eramatera joan gara, zerbait behar baduzu deitu”. Kaka! Gosaldu eta ikastolako lanak egin ondoren amari deitu nion eta esan zidan amonak okerrera egin zuela. Antza denez amonak—gaixotasun bat zuen, arkakusoek zutena eta medikura joatea gustatzen ez zitzaionez, ez zuen tratamendurik jaso sendatzeko. Dirudienez beraren amantal goxoa arkakusoz josia zegoen eta horregatik gaixotu zen.

Hurrengo egunean nire amatxi ikustera joan nintzen. Denbora asko hitz egiten pasa ondoren nire bizitza markatuko zuen esaldia bota zuen, inoiz espero ez nuen esaldi bat: “San Austin egunakin torri nintzen ta beakin jungo naz”. Biharamunean zen San Agustin.

Hurrengo goizean esnatu bezain pronto amari deitu nion amonari buruz galdetzeko. Ezer ez. Amaitu zen. Amantal beltzak jada ez zuen jaberik.

Amona joan zenetik hilabete pasa zenean, bere gela txukuntzen hasi ginen. Halako batean kutxa bat aurkitu nuen eta paper bat zegoen barruan. Orriaren goialdean zera jartzen zuen: “Arraina labean: errezeta”. Amona joan zen baina gutxienez hain gustuko nuen arraina labean prestatu ahal izango nuen. Handik aurrera ez dugu San Agustin eguna berriro ospatu eta nik eguna ene txoko maitean eta arraina labean prestatzen pasatzen dut. Agur amona Agustina!